



LESAKAKO UDALA

Plaza Zaharra, 1
31770 LESAKA (Nafarroa)
CIF P3115200B
Tel. 948 63 70 05
udala@lesaka.eus
www.lesaka.eus

Lesaka

Derrigorrezko diru-bilketa

Administrazio honi egotz ez dakizkiokeen arrazoiengatik Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorreko 99.4 artikuluan xedatutakoaren arabera interesdunari edo horren ordezkariari jakinarazpena egiterik izan ez denez, eta, aipatu artikuluan xedatutakoaren arabera, egin diren jakinarazpen ahaleginak espedientean jasota, ediktu honen bidez dei egiten zaie ordainketa egitera behartuta daudenei eta horien ordezkariari aurrez aurre jakinarazteko espedientean jasotako prozeduren ondoriozko administrazio-egintzak. Agertzeko epea hamabost egun naturalekoa da, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita: astelehenetik ostiralera, goizeko bederatzietatik arratsaldeko ordu bietara, bulego kudeatzailean (Eneko Aritza kalea 16, etxabea, 31007 Iruña). Epe horretan agerraldirik egin ez bada, jakinarazpena egintzat emango da, lege-ondorio guztietarako, agerraldia egiteko epea bukatu eta hurrengo egunean bertan.

OHARTARAZPENAK

Egitate honen aurka honako helegiteetako bat jar daiteke hautaz:

- a. Berraztertze errekurtso, egintza eman duen organoaren beraren aurrean, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.
- b. Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiaren aurrean, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.
- c. Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hileko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Premiamendu-prozedura, nahiz eta helegitea aurkeztu, Nafarroako Foru Erkidegoko Diru Bilketako Erregelamenduko 166. artikuluan xedatutako moduan eta baldintzetan soilik geldiaraziko da.

Lesaka, 2023ko Urtarrilaren 12an

Diru Biltzaile Exekutiboa,



Iñigo de Loyola Urdangarín Zurutuza.

DEITUAK DIREN ZORDUNAK

Jakinarazten den egitatea: Premiamendu probidentzia
 Erreferentzia: 153000/00001/2023

Espedientea	Izena	Kontzeptua	Urtea/Seihilekoa	Ordaintzeko dago en zenbatekoa	Premiamendu data
15856471H		Hirilurreko ondasunen gaineko kontribuzioa	2022/	11,72	19/10/2022
B20816690		Hirilurreko ondasunen gaineko kontribuzioa	2022/	1.504,67	19/10/2022
U31817190		Hirilurreko ondasunen gaineko kontribuzioa	2022/	25,03	19/10/2022